Elizondoko udazkeneko feriek abiatuko dute eskualdeko feria garaia



Denetik ikusteko, dastatzeko eta erosteka aukera izanen da herrian barna. ONDIKOL

Urriaren 30ean eta 31n izanen dira aurten udazkeneko feriak Elizondon, eta urtero bezala, egitarau zabala antolatu du herriak.

Ortzirale goizean aziendek ez dute hutsik eginen Merkatuko zelaian, eta makineria erakusketa ere ikusgai egonen da Laxoko frontoian.

Horrez gain, borzgarren aldiz eginen dute Elizondoko Ferietako Ardi Gasna Lehiaketa. Arratsaldean, berriz, pilota partidak izanen dira Juanjo Atxa Mindegia pilotalekuan. Eta doike, ortzirale zein larunbatean postuz beteko dira herriko karrikak, denetik erosteko aukerarekin.







asegi asesorías
Zergalan
• Kontabilitate zerbitzuak
• Zerbitzu fiskalak
• Lan aholkularitza
• Aholkularitza juridikoa
• Herentzia eta Testamentuak
• Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
• Datuen babesa
• Mugaz bertze aldeko aitorpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)
www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com
Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300
Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395
Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108
Eltzeta, 3
31770 LESAKA
T. 948 638 077

HOTEL BAZTAN
★ ★ ★
ELIZONDOKO FERIAK
Urriak 30 eta 31
Gure menuak
ETXEKOA 45€
Lehen platera:
- Onddoen nahaskia edo
- Ahate entsalada gaztain ozpinarekin
Bigarren platera:
- Orein azpizuna bere saltsarekin edo
- Neguko gazpatxoa eper eta untxiarekin
Postrea:
- Labeko gazta tarta edo
- Torrija karamelizatua
TRADIZIONALA 45€
Lehen platera:
- Banabarrak sakramentuekin
Bigarren platera:
- Usoa saltsan
Postrea:
- Gazta tarta
Etxeko ardoa edo sagardoa
948 580 050 - hotelbaztan.com

«Jendearekin egoteko eta solasean aritzeko izaten da feria eta egun polita da»

JON LARREGI GOÑI BIOK BAT TAILERRA

R. Oskariz ELIZONDO

1978an ireki zuten Jon Larregi Goñiren gurasoek Biok Bat tailerra Elizondon, «Goizalde ondoko karrikan». Leku «ttikia» zela azaldu du, eta «saltzeko tresnen eskaintza ere ttikiagoa zen. Baina ordu aunitz sartuta negozioa aitzinera atera zuten». Lana «bertze manera batean» egiten zen: «ordu aunitz aritzen ziren lanean, baina egia da ere erritmo lasaiagoan egiten zela lan; orain bizi garen moduan, telefonoa, Whatsappa, e-maila... bizi martxa azkarragoa dugu».

Hasmentan «batez ere aita aritzen zen, baina gero ama ere laguntzen hasi zitzaion. Orain gehiago izanen dira, baina orduan emakume gutti ikusten ziren tailerretan mekanika lanetan. Lehenbizian jendea harritu egiten zen, baina ongi aritzen da eta fite ohituratu ziren». Aitak erretiroa hartu bazuen ere, «amak oraindik ere segitzen du konpontzen, saltzen... denetik egiten du».

Jon «betitik» aritu da etxeko negozioan gurasoei laguntzen, «baina 2005ean, ikasketak akitzean, hasi nintzen serio lanean». Bere bi anaiak ere bertan aritu izan dira, «baina denbora gutti, bakoitzak bere bidea hartu zuen eta ni bakarrik gelditu naiz hemen».



2005ean hasi zen tailerrean lanean. UTZITAKOA

Tailer berria

2014an lekualdatu zuten tokiz tailerra eta gogoan du oraino ateak ireki zuten eguna, «uztailaren 30ean». Herrigunetik Elizondoko sarrerako industriagunera joan ziren, eta azaldu du toki berrian «aunitzez ere espazio gehiago» dutela, «batez ere aparkalekuagatik. Lehen zaila zen ondoan aparkatzea eta orain bezeroak ez dute problemarik izaten». Aparkalekuaz gain, «lan egiteko manera ere aunitz errazten du». Izan ere, ama-semeaz gain, hiru langile gehiago aritzen dira bertan, eta «produk-

BERRO BIDE
MASSEY - FERGUSON
FENDT
Bisita gaitzazu ferietan
948 453 343 administracion@berrobide.com
Ordoki industrial gunea - 31713 ARIZKUN

INTZA TABERNA
Ongi pasa feriak!
T. 948 580 417
BOKATAK
PINTXOAK
RAZIOAK
Mendi ostatua
Enkarguak hartzen ditugu bazkari eta afariak
Giro ederra!
T. 948 580 313



Elkarrekin lanean aritzen dira Pili Goñi eta Jon Larregi ama-semeak. UTZITAKOA

tuen esposiziorako, biltegirako, tailerrerako... orain hobe muntatua dugu dena eta lanerako toki gehiago dugu».

Leku berriak negozioa bi sektoretan banatzeko aukera eman die: alde batetik, «nekazaritzarako eta mendirako makineria» eta bertzetik «kotxeendako zerbitzu azkarra dugu izkin batean; gurpilak, olio aldaketak, frenoak... horrelako lanetarako».

Esposizioan denetik dute salgai: «motozerrak, sasiak garbitzeko makinak, egurra lehertzeko makinak, belarra moztekoak, traktoreak... sasoiaren araberakoa izaten da beti. Orain jendea egurra prestatzen hasia denez, horretarako makina gehiago saltzen dira, edo eroritako hostoak garbitzeko haize makinak, adibidez. Urte hasmentan baratzeko makinak, belarra moztekoak... gehiago saltzen dira». Hala ere, «egia da azkeneko urteetan ez duela lehen bezalako negurik egiten, eta familia aunitzek lanean segitzen dute».

Feriak, «egun bereziak»

Urtero paratzen dute postua Elizondoko ferietan; «lehen denda genuen tokitik hurbil muntatzen genuen, Goizalde parean, baina terraza paratu zuten eta geroztik frontoian egiten dugu, gainerako traktore eta makineriarekin batera». Ttikitatik ezagutu izan ditu feriak eta «betitik paratu dugu postua». Horretarako lehenagotik prestatu behar da dena: «ortzeguna eta ortzirale goiza lan egunak dira niretako, eta gero arratsaldean dena bildu, garbitu eta bere lekura eraman behar da».

Erakusleiho ona dela dio, baina hori baino gehiago, «jendearekin egoteko tokia da. Baztandik jende aunitz etortzen da ferietara eta hemen denok ezagutzen dugunez elkar, lasai solastatzeko eguna da». Gainera, «dena biltzean gustatzen zait buelta bat ematea eta postuak ikustea, egun polita izaten da».

Aurten ere «makineria hartu eta betiko tokian egonen gara».









ESKISAROI
JATETXEA
T 948 580 013
Jaime Urrutia 40 31700 Elizondo
www.eskisaroi.eus
Ongi pasa feriak!

Juli Ostatua
Gosariak eta bazkariak egunero,
afariak asteburu eta jaiegunetan.
Etxeko Janaria
Giltxaurdi, 6 | ELIZONDO 948 452 462

Goizalde ostatua
Ongi pasa feriak!!
Pintxoak
Eguneko menua
Karta
Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Entsaladak
Hanburgesak
Errazioak
Jaime Urrutia 8 - ELIZONDO - Tel.: +34 948 58 13 34 - goizaldeostatua.com

ELBETEko POSADA
Eguneko menua
Karta bertako produktuekin
6 gelako hostala eta gosaria
bertako produktuekin
Karrikaundi • ELBETE • T. 948 581 519
info@posadaelbete.com · www.posadaelbete.com

ONGI PASA FERIAK!
Malkorra
Txokolatea hurrarekin
Tartak eta pastelak | Etxean egindako izozkia
Santiago, 15 | T. 948 580 061 | ELIZONDO
www.malkorra.com

«Betiko produktuak egiten dituzten tailerrak ixtean bizimodu bat akitzen da»

MIGUEL QUEVEDO LIZARDI QUEVEDO BURDINDEGIAK 95 URTE

A. Arotzena ELIZONDO

Elizondoko Santiago karrikan dagoen Quevedo Burdindegiak betiko etiketarekin betetzen ari da 95. urteurrena: familia-negozioa eta hurbileko zerbitzua. Enpresa Luis Quevedok sortu zuen 1931n, eta hasi zen karrikatik irten gabe hazi zen. «Bere izeba batzuekin hasi zen, justu parean zegoen janari denda batean, eta gero izebengandik ihes egin zuen, independizatu egin zen», dio gaur egun denda kudeatzen duen Miguel Quevedo bilobak bere aitatxi zenari buruz.

Lehen urteetan, negozioa Santiago karrikako 21. zenbakian kokatu zen. Denborarekin, Luis aitzindariaren semeek, Enrique eta Paco Quevedok, erreleboa hartu zuten eta burdindegia martxan mantendu zuten, 1975ean, karrika berean bertze lokal bat ireki zuten arte, Santiago 31n. Hamarkada luzez elkarrekin bizi izan ziren bi lokalak. Etapa bikoitz hori 2008an itxi zuten, hasierako negozioak pertsiana jaitsi zuenean. Ordutik, dena kontzentratuta gelditu zen gaur egungo 400 metro koadroko dendan.

Gaur egun, Miguel Quevedo Lizardi da buru, 60 urteko elizondoarra, hirugarren belaunaldia, Pacoren semea eta Luisen biloba, burdindegiari lotutako bizitza osoa duena. Paco aitarekin «hogei bat urtez» aritu zen eta, gaur egun, Mirentxu Ziaurriz emaztearekin eta beraiekin urteak daramazkin Kepa Lazarorekin ari da, «hiruen artean eramaten dugu denda, urte osoan».

Lehen sektorearen gainbehera

Quevedok dioenez, «duela hogei urte arte, lehen sektorea arras garrantzitsua zen Baztanen, baserrietatik ekartzen zuen jende guztiarekin eta bizitzeko modu hori galtzen ari da, eta hori nabaritzen da bezeroengan. Lehengo gauzak nahi dituen jende hori orain aurkitzea arras konplikatua da. Horrelakoak egiten zituzten tailer horiek itxi egin dira, eta arras gaizki gabiltza aurkitzeko. Eta badaude saltzen ez diren gauzak, irteerarik ez dutenak. Batzuetan zerbait aurkitzen duzu, hunkitu egiten zara, dendara ekarri eta ez da saltzen, ez dakizu zer egin horrekin». «Orain jendea beste era batera bizi da –azpimarratu du–, gauza merkeak erosi, erabili eta bota, lehen jendeak gehiago gordetzen zituen gauzak». Bezeroekin duen harremanean eta hamarkadetan sendotu den konfiantza sarean ere jartzen du fokua Quevedok. «Herri osoa ezagutzen dugu, gurasoak eta seme-alabak. Aurrez aurreko tratu hori eskertu egiten dute gehienek».

Quevedotarren laugarren belaunaldi baten aukerari buruz, argi eta



95 urte daramazki lanean Quevedo burdindegiak Elizondoko Santiago karrikan. QUEVEDO



Mirentxu Ziaurriz eta Miguel Quevedo, burrdindegiaren atarian. R. OSKARIZ

garbi erraten du ez dagoela aukerarik, «bi seme ditut, baina bertze alde batetik doaz. Beraien lana bertze bat da eta hemen agertzen dira asteburuan, baina ez dute inolako asmorik negozio honekin segitzeko». Ongi hornitutako burdindegia izateaz gain, gisa guztietako artikuluak eskaintzen segitzen dute, baita baserriko produktu tipikoak ere: joareak, kaikuak, saskiak... baina «salmenta aunitz murriztu da, ez direlako eguneroko bizitzarako erabiltzen, *souvenir* turistiko edo apaingarri gisa baizik, baina etxeetan orain ez dago estilo horretako apaingarririk, dena aldatu da. Agian gaztainak erretzeko danbolina salduko da, baina gero eta bakanago. Lau sentimental gelditzen dira oraindik gaztainak erretzen dituztenak, eta berdin egiten dute *air–fryer*ean ere. Orduan, itxi egiten dira horrelako produktuak egiten dituzten tailerrak, eta horiekin, akitu egiten da bizimodu bat». Online salmentak edo saltoki handiek ere eragina dute burdindegiko negozioan, «lagundu ez dute laguntzen, hori horrela da».

Sarrailagintza ere

Burdindegiak sarrailagintza lanak ere artatzen ditu, herri aunitzetan dagoeneko aurkitzea kosta egiten den zerbitzua eta «dezente eskatzen da, atariak, komunitateak, ate trabatuak, giltza barnean utzi edo galdu egin dudala... Jendeak ez dauka ideiarik ere eskuz egindako lanetan, eta horretarako ere bagaude, adibidez, bentiladore bat jartzera ateratzen gara etxeetara, gauza txikiak...».

Elizondoko feria eguna garrantzitsua izaten da Quevedo burdindegian, «lan aunitz egiten den eguna izaten da, bertze modu batean egiten dugu lana. Duela gutti arte, herrietatik jendea erosketak egitera etortzen zen Elizondora eta orain, berriz, aunitz ikustera etortzen dira, Gipuzkoatik, Ultzamatik edo Sakanatik aunitz etortzen dira neguari begira zer erosten ahal duten... eta horietako batzuk erosi ere egiten dute. Guretako lan handiko eguna da, ez dugu aziendak ikusteko edo bazkari berezi bat egiteko aukerarik, gero arratsean ateratzen gara», dio. *info+: erran.eus*

CARNICERIA
HARATEGIA
CHARCUTERIA
CIAURRIZ
Tel.: 948 580 257
Jaime Urrutia, 26 • Elizondo

ferreteria
Quevedo
TXERRI HILTZEAN ERABILTZEKO TRESNAK


Santiago 31 • ELIZONDO
Tel. 948 580 234
www.ferreteriaquevedo.com

ELIZONDOko
plazan
EROSKI CITY
Astelehenetik Larunbatera:
09:00-21:00
Santiago 12 · ELIZONDO
T. 948 580 005
EROSKI city
BEA ARRAINDEGIA
esarte











«Ferietako gauzarik politena azienden paseoa izaten da»

JON ETXAIDE MORTALENA ERRATZUKO ABELTZAINA

G. Pikabea ERRATZU

Ttiki-ttikitatik ibili da behor artean Jon Etxaide Mortalena erratzuarra. Kontatu duenez, etxekoengandik heldu zaio afizioa: «Aitatxik behorrak izaten zituen, ondotik, aitak eta osabak, eta aitak utzi zuenean, anaia eta biok hasi ginen». Burgete arrazakoak izan dituzte beti, baina ez dute lehengo buru kopurua: «Aitak hamabortz buru izaten zituen, eta guk ehun bat izanen ditugu». Esplikatu duenez, «anaia eta biok hasi ginenean, buru gehiago paratzen eta arraza mejoratzen hasi ginen, lehiaketetan ibiltzeko».

Berak halaxe segitzen du. Eta gainera, ez bakarrik. Berak ere asmatu du ondorengoek segida emateko bidea: «Anaiak utzia du, eta orain, Julen eta Joana seme-alabekin gelditu naiz. Haiek segituko dute aitzinerat». Ofizioz kamioilaria da Etxaide, eta urteak pasatu ahala, behorretarako afizioak uste baino toki handiagoa hartu du bere bizitzan. Horren jakitun da: «Hainbertze behorrekin, afizioa baino gehiago bihurtu da, sobera kapritxo... Niregatik balitz erdiak aspaldi kenduak izanen nituen, saltsa handiegia baita, baina semeari eta alabari aunitz gustatzen zaizkie. Alaba albaitaritza ikasketak egiten ari da eta semearen eta bien artean badut segida gibeletik».



Ferietan behorrak sartzen–. VALLEDEBAZTAN.COM

Han eta hemen edukitzen dituzte aziendak: «Behor gazteak Baztango mendietan ibiltzen ditugu, eta behor helduak eta umeak udan Andiara eramaten ditugu; neguan, berriz, Nagorera. Nagoreko mendiak udan eta udaberrian jan gabe egoten dira, eta urrian eramaten ditugunean, neguko bazka izaten da». Hala espero du, nahiz eta aurtengo uda gogorraren ondorioz, badituen bere kezkak: «Halako idortearekin ez dakizu non sartu behorrak. Neguko bazka ematen hasi gara eta horrekin, noski, gastua goratu zaigu».

40 bat buru ferietara

Kontuak kontu, gaur-gaurkoz hain kuttunak dituen Elizondoko feriei begira jarria da erratzuarra, «40 bat buru harat eramateko intentzioa» baitu. Hala borobilduko du aurten feriaz feria egin duen itzulia: «Feriak maite ditut. Behorrak Elizondoko udaberriko feriara eramaten ditugu, Amaiurren, Irunean eta Urdazubin ere izan gara, eta udazkeneko Elizondoko ferietan ere ez dugu hutsik eginen». Azken horiek bereziak dira beretako, «arras politak».

Duela hamazazpi urte hasi zen Elizondoko ferietara aziendak eramaten. «Azienden feria arrunt galdua zegoen. Tratanteek hogei bat buru eramanen zituzten, baina bertzerik ez. 2009an, ordea, Xabi Torres Elizondoko alkate zela, Luis Laurnagarai *Garra* eta Joxean Etxeberria mugitzen hasi ziren. Haiekin batera, Juan Miguel eta Julian Agirre *Bibi* anaiak, Fermin Larralde eta Joseba Zelaieta *Xaldubi* hasi ziren antolatzen. Abeltzainoi deika hasi ziren. Bilera bat egin genuen, eta hala animatu nintzen. Gaur egun, berriz, Aitor Bazterrikak eramaten du afera eta ferien aitzinetik antolatzeko bilera bat egiten dugu».

Hamazazpi urtez ferietan

Hasi bazen hasi, Etxaidek geroztik ez du hutsik egin ferietan. Horrek,



Jon Etxaide erdian, Joana alabarekin –ezkerrean– eta Julen semearekin –eskuinean–.

ordea, gibeletik «lan aunitz» duela aitortu du: «Behor batzuk hemen eta bertzeak han izaten ditugu, eta egun batzuk lehenago hasi behar duzu biltzen. Hoberenak bereizi, garbitu eta Elizondora eramateko ongi prestatu behar dituzu. Lehiaketa edo feria izan, igual du, berdin prestatu behar dituzu, han begi aunitz izaten dira eta...». Prestaketa lanak akituta, bezperan, Elizondoko eta Elbeteko belaietara eramaten dituzte aziendak «eta eskertzekoa da belai horiek uztea».

Baina hortik haratago, laguntza gehixeago ere eskertuko luke: «Aziendak eramaten ditugun guziak baztandarrak gara, baita artisauak ere, eta lan handia egiten dugu. Elizondoko herriak zerbait ematen du, baina guti, eta udalak ekonomikoki laguntza eman beharko lukeela uste dut. Hau ez dugu diruagatik egiten, maite dugulako egiten dugu eta sosari begira hasiko bagina, ez zen feriarik eginen. Baina alde batetik eta bertzetik denok eman beharko genuke».

Aurten ere bai

Haur denboran ferietan ibiltzeko ohiturarik ez bazuen ere, bistan da aspaldiko urteotan egutegian gorriz markatutako eguna duela ferietako ortziralea. Aurten ere han izanen da: «11:00etan edo horrela, aziendak sartuko ditugu. 200 bat behor, 50 bat behi eta 300 bat ardi izaten dira, eta kasu jakin batzuetan, euskal zerriak eta astoak. Elbete aldetik Elizondoko sarrerara aurkezpen paseoa egiten dugu eta elegantea izaten da. Jende aunitz biltzen da eta niretako ferietako gauzarik politena izaten da».

14:00 aldera arte edukitzen dituzte aziendak Merkatuko Zelaian eta ondotik, «aziendak kargatu eta bere lekura eramaten ditugu, deskargatu, dutxatu eta handik bazkaltzera joaten gara. Abeltzain guziok elkarrekin bazkaltzen dugu, bazkaria ematen digute eta ondotik, trago batzuk hartu eta gustura ibiltzen gara». Aurtengo Elizondoko ferietan ere goiza azienden bueltan, eta arratsaldea lagunartean pasatzeko intentzioa du.









indauto
TAILERRAK
Mekanika
Elektrizitatea
Pneumatikoak
Ibilgailuen salerosketa
Ongi pasa feriak!
Ind. Ordoki · Arizkun (NA)
T. 948 453 488 · M. 675 324 960
info@indauto.es

Albaitaritza
ZURE NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZARAKO DENDA ESPEZIALIZATUA
Materiala
Botika
Elikadura
Osagarri mineralak
Bildots eta aratxeendako esnea
Xaboi eta desinfektatzaileak
948 580 980
www.albaitaritza.com
Albaitack
Zurekin, egunero!
ZURE BASERRIRAKO MATERIAL ETA HORNIGAIAK
Zaldi eta zaldi-zaleentzako produktuk
948 506 169
www.albaitack.com
ALBAIKIDE
ANIMALIEN ONGIZATERAKO PRODUKTU ETA ZERBITZUAK
Animalien osasuna eta zaintza
Elikadura espezializatua
Zaintza eta osagarriak
Aholkularitza eta arreta hurbila
902 169 169
www.albaikide.com
Zure baserria, gure konpromisoa

Gureauto
TAILERRAK
ongi pasa feriak!!
Mekanika, elektrizitatea,
Ibilgailuen salerosketa
Zaldubia Ind. IRURITA | T. 948 580 225
M. 619 328 145 | gureauto2@gmail.com

«Gure artean saretzeko eta espazio alternatiboak sortzeko tokia da gaztetxea»

XABI ERTZE ETA MAIALEN OSKOZ BAZTANGO GAZTE ASANBLADA



2019an hasi zen Ertze Gazte Asanbladan eta 2025ean sartu zen Oskoz. AINTZANE ARIZTEGI

R. Oskariz ELIZONDO

Duela 30 urte sortu zen Baztango Gazte Asanblada, 1996an, «gazteondako eskaintza kultural eta politiko alternatibo bat eskaintzeko asmoz». Geroztik, «ehunka gazte pasatu dira asanbladatik, belaunaldiz belaunaldi». Gaur egun 12 bat lagun biltzen dira Baztango Gaztetxean, eta bertako kide dira Xabi Ertze eta Maialen Oskoz elizondoarrak. Gaztetxea kudeatzeaz gain, «solasaldiak, tailerrak, aisialdirako eskaintzak eta bertzelakoak» antolatzen dituzte. Gainera, «Elizondoko feriak bezalako datetan, bestarako espazio alternatibo bat ere eskaintzen dugu». Helburua argi dute: «Baztango gazteak saretzea, egungo kezken inguruan hausnartzeko espazio bat edukitzea, gazteok egunerokoan bizi ditugun arazoak lantzea eta mahaigaineratzea eta iritzi kritiko bat sortzea».

Ertze 2019an hasi zen Gazte Asanbladan, «momentu hartan, urte batzuk ziren jada asanblada desaktibatuta zebilela, eta berraktibatzeko eta zerotik hasteko helburuarekin bildu ginen gazte andana bat. Ordutik hona jende berria hurbiltzen joan da». Horien artean dago Oskoz, joan den urtean sartu zena: «bilera ireki bat deitu zela ikusirik, momentu egokia zela pentsatu nuen taldera batu eta gauzak antolatzen laguntzeko».

Gazteendako espazioa

Gaztetxearen kudeaketa da «asanbladaren jardunaren zati garrantzitsu bat». Izan ere, «Gazte Asanbladaren helburuak betetzeko toki bat eskaintzen digu: gure artean saretzeko, espazio alternatiboak sortzeko, formatzeko, gazteon intereseko gaiak lantzeko, eskaintza kulturalak proposatzeko...». Hori dela eta, «gaztetxea beti dago irekia zerbait antolatzeko gogoz dagoenarendako, eta normalki bertze eragile batzuk ere ibili ohi dira gauzak antolatzen».

2024an «gaztetxeak biziberritze bat behar zuela ikusi genuen, eguneroko erabileran ikusten genituen akats batzuk konpontzeko». Hori dela eta, urte hortako urtarrilean obrak hasi zituzten. Aitortu dutenez, «uste genuena baino aunitzez ere zailagoa egin zaigu afera; proposa-



«Gazte Asabladaren beharretara egokitzeko» zaharberritzen ari dira gaztetxea. AINTZANE ARIZTEGI

menak falta ez baziren ere, aunitzetan horiek ez ziren arras egingarriak». Gainera, «iturgintza eta elektrizitate kontuetan aunitzetan kanpoko jendeari laguntza eskatu behar izan diogu, jakintza faltagatik». Izan ere, «gaztetxeko lehen obra egin zenean gehienak ofizioetako ikasleak edo langileak ziren, eta horren falta nabaritu dugu gure kasuan».

«Komuna berritzea, barra haunditzea eta ur berogailua instalatzea» ziren helburu nagusietako batzuk, «eta horiek egitea lortu dugu». Handiena egin badute ere, «lanak oraindik ez daude guziz akituak.

ESKABAZIOAK
GONI
650 374 146
ELIZONDO


arteka
ARKITEKTURA ZERBITZUAK
www.artekabaztan.com
Balda Medikua Plaza, 1-1A
31700 ELIZONDO
948 580 610
Certified Passive House

NEKAZARITZARAKO TRESNERIAK
Orain Kubota ere!
BISITA GAITZAZU ELIZONDOKO FERIETAN!!!
www.arozberri.com
AROZ-BERRI, S.A.
Tel. 948 581 021 / 948 580 258
irurita@arozberri.com - Ctra. NA-8307, km 0'8 - 31730 IRURITA (Navarra)



Aurtengo ferietan ere postua paratuko dute eta besta izanen da gaztetxean. AINTZANE ARIZTEGI





Gauzak aitzinatzen ari gara poliki- poliki, gure ahalmenaren arabera. Orain eskaileretako obra akitzea, barra hastea eta eszenatokia txukuntzea falta zaigu».

Nekeak neke, «egindako lanekin kontent gaude, gaztetxeari aire berri eta goxoago bat ematea lortu dugulakoz. Gehienak ikasleak edo langileak garenez, gure denbora librean eskaintzen ahal diogun denbora murritz horretan aritzen gara. Espero dugu ikasturte honetan akitu ahal izatea eta obra lantaldea behingoan desegitea».

Ferietarako prest

Aurten ere goiz eta arratsaldean irekiko dut gaztetxea feria egunean. «Goizean kanpoko aldean Herri Mugimenduko postua paratuko dugu, non hainbat eragile eta gazte sortzaileri espazio bat eskaintzen diegun haien materiala saltzeko edo informazioa banatzeko. Horrez gain, ostatua irekia izanen dugu zintzurra bustitzeko, eta gaztetxe barnean ere sorpresaren bat aurkitzen ahalko da. Arratsean, 22:00etatik goiti irekiko dugu eta Beon&Kass eta M&M musika jartzaileak izanen ditugu gaua alaitzen. Giro paregabea izatea espero dugu bertze behin ere».

Dirua biltzeko baliatzen dute egun, baita jendea gaztetxera hurbiltzeko ere. «Egia erran, materiala saltzen lortzen den sosa nahiko sinbolikoa da. Diru sarrera gisa baino, zenbait aldarrikapen ikusarazteko helburuarekin paratzen dugu postua: Erdiz Bizirik, Aroztegiko Elkartasun Komitea, Zapatillera, Ernai edo Iñarrosi Gazte Feministak bezalako taldeak izan ohi dira bertan materiala saltzen dutenak». Postuan ez bezala, «gaueko besta bai izaten dela diru sarrera on bat; batzuk gaztetxean bakarrik besta egitea maite dutelakoz, eta bertzeak ostatuak beteak daudenez gaztetxean akitzen dutelakoz. Normalki lan gehiena goizeko seietatik goiti izaten dugu, ostatuak hesten direnean».

Etorkizunera begira

«Gauzak antolatzeko gogoz» hasi dute ikasturte berria, «azken urteetan, obrak direla eta, asanblada zein gaztetxea apal ibili direlakoz». Oraindik agenda hesten ari badira ere, «aurtengo helburua Ziklo Antifaxista antolatzea izanen da. Hilabeteka gai desberdinak jorratuko ditugu, borroka antifaxistarekin duten lotura azaleratzeko: feminismoa, antiarrazakeria, kultura, nazio auzia, antiespainolismoa... Hilabete bakoitzean hitzaldi, tailer, proiekzio eta bertzelakoak antolatu nahi ditugu. Fite izanen duzue honen berri!».

Akitzeko, Baztango Gazte Asanbladara batzeko gonbita luzatu dute: «normalki ortzegunetan 20:00etan egiten ditugu asanbladak gaztetxean. Denen ekarpenek badute tokia gurean, beraz, ateak irekiak daude antolatzeko, borrokatzeko, formatzeko eta saretzeko gogoz dauden gazte guziendako». Asanbladara hurbildu ezin dutenak, berriz, «gurekin harremanetan paratzen ahal dira Instagram bidez edo kideengana hurbilduta. Animatu!».